



# Argindar eta gas erreziboak ordaintzeko laguntzak

## Zer da? Zertarako da?

Argindar eta gas kontsumoaren ordainagiriaren zati bat ordaintzeko laguntzak.

**Aurkezpen epea:** Otsailak 5tik 23ra

## Nork eska dezake?

Honako baldintzak betetzen dituzten elkarbizitza unitateak:

Andoainen erroldatuta egotea.

Elkarbizitzako kide guztien diru-sarrerak 15.210,00€ edo gutxiagokoak izatea

36.000,00€ ko aurrezkiak ez gainditzea

Bigarren etxebizitza baten jabe ez izatea %50eko portzentaia gaindituz

Azkeneko 6 hilabetetan ezin izango da elkarbizitza unitatea osatzen duten pertsonengan errolda aldaketarik gertatu, eta egongo balitz, behar bezala justifikatu beharko litzateke, gizarte zerbitzuetako batzordearen iritziz.

## Aurkeztu beharreko agiriak

[E910 Argindarra eta gasa ordaintzeko laguntzak](#)

Eskaera eredu normalizatuan.

Lege horren 39/2015 Legearen 28. Artikuluan eta 2016/679 (EB) Erregelamenduko 6.1. artikuluan ezarritakoaren arabera, Andoaingo Udalak zuzenean kontsultatuko du, interesdunak horren aurka egiten ez badu behintzat, Foru Ogasunean eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintzan, eta NISAE elkarreragingarritasun-nodoaren bidez, laguntzak eskuratzeko baldintzak betetzen diren zehazteko beharrezkoa den informazioa, eta, bereziki, honako datu hauek: egunean izatea Foru Ogasunaren eta Gizarte Segurantzaren zerga-betebeharrak; aurreko ekitaldiko errenta-aitorpena; Gipuzkoako eta probintziatik kanpoko ondasun higiezinak; ondare-maila eta banku-kontuen maila.

*\* 2016ko apirilaren 27ko Datuak Babesteko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 21 artikuluekin bat etorritik, eskatzaileak bere datuak kontsultatzearen aurka egin ahal izango du, aurka egiteko arrazoiak adieraziz; eta kasu horretan, udalak dagozkion ziurtagiriak aurkeztera behartu ahal izango du.*

## Non/Nola eskatu daiteke?

**Aurrez-aurre:**

[ATARIA - Herritarrentzako Arreta Zerbitzua \(udaletxeko beheko solairua\)](#)

Goikoplaza z/g 20140 Andoain

8:00 - 14:30 (Udan 8:00 - 13:30 en verano) Osteguna/Jueves: 8:00-17:45

Tf.: 943 300 830

[Anbrosia Olabide Gizarte Zerbitzuetako zentrua](#)

Pio Baroja 1B 20140 Andoain

8:00 - 14:00 (Udan 8:00 - 13:30 en verano)

Tf.: 943 304 343

**Internetez:**

[Egoitza elektronikoa:](#)

## Ordaindu behar da?

Doan da.

## Izapidetze edo ebazpen epea

Aurreikusitako epea: Hilabete

## Araudi aplikagarria

Ez dagokio.

[Diru-sarrerak bermatzeko eta gizarte inklusiorako udal laguntzak emateko ordenantza](#)

## Eskaera jaso ondorengo urratsak

Aurkeztutako dokumentazio aztertu ondoren, agiriren bat ekarri ez dutenei herritarrei hutsegitea zuzentzeko gutun bat igorriko zaie, 10 eguneko epea emanez.

Gizarte Zerbitzuak Batzorde Irizpenemaileko irizpena.

Tokiko Gobernu Batzarraren akordioa, laguntzak onartuz edo ukatuz.

## Nork onartu behar du?

Tokiko Gobernu Batzarrak, Alkatetzak eskuordetuta

## Izapidetze ardura duen lansaila

Gizarte Zerbitzuak - 943 304 343 edo [gizarte-zerbitzuak@andoain.eus](mailto:gizarte-zerbitzuak@andoain.eus)

## Beste zenbait ohar interesgarri

Ez dago ezer aipagarririk.

## Datu pertsonalen babesa

**Fitxategiaren izena:** Gizarte-larrialdiko laguntzak

**DBEB kodea:** M12

**Fitxategiaren xedea:** Berariazko premiak (etxebizitza zuria, linea zuria) estaltzeko laguntza ekonomikoen eskatzaile direnen datu identifikagarriak biltzen dituen datu pertsonalen fitxategia

**Aurreikusitako lagapenak:** Eusko Jaurlaritza

**Oharra:** Zure eskaeraren xedea kudeatzean, litekeena da eskaera beste fitxategi batean sartzea.

Sinatzaileak bere datu pertsonalak tratatzeko baimena ematen du eta, eta aurreikusita egonez gero, baita lagatzeko ere.

Interesdunak datuetara sartzeko, horiek zuzentzeko eta deuseztatzeko eta horien aurka egiteko eskubidea baliatu dezake Udalaren aurrean.

Informazio gehiago: [LOPD](#)